

OSASUNA ETA ONGIZATEA

Marihuanaren kontsumoak gure gorputzean eta buruan dituen ondorioen zergatiak anitz dira, hala nola kontsumoaren maiztasuna eta substantziaren kopurua, adina, sexua, gorputzaren pisua, alde zuzeneko joera pertsonala, ingurune soziala (kontsumoaren errituala, generoaren eraikuntza...), etab. Beraz, ez du denengan berdin eraginen.

Burmuina eta garapena

Gure burmuinean komunikazio neuronaleko sare bat dago, sistema endokanabinoide ere deitutakoa, burmuinaren garapenaren eta haren funtzionamendu arruntean arrunt garrantzitsua dena. Marihuanaren kontsumoak sistema hori aktibatzen du, eta ikasteko gaitasunean eta ikasitako portaera-patroien hondatzean eragiten du. Ez hori bakarrik. Koordinazioan eta animoaren egoeran ere eragiten du, eta hautematea aldatzen du.

Nerabezaroan eta gazterian garatzen dira burmuinaren eta pentsamenduaren egiturak. Bada, biziaren ezinbesteko etapa horietan marihuanaren kontsumoak ikaskuntzan tartekatutako burmuin-guneen jarduera aldatzen du, eta eritasun mentalak izateko aukera lotuta dago kontsumoaren alde zuzeneko joera pertsonalarekin, maiztasunarekin eta intentsitatearekin. Ezin da zehatz-mehatz jakin marihuanak gure organismoan epe labur eta luzean zer ondorio negatibo izanen dituen.

Emozioen alterazioa, izu-krisia, antsietatearen eta depresioaren nahasmenduak edo nahasmendu psikiatrikoak agertzea; horietan dira substantzia hori noizean behin edo maiz kontsumitzeak sortutako arazoetako batzuk.

Birikak

Marihuana kontsumitzeko modu bat baino gehiago bada ere, maizenik erre egiten da. Hartara, marihuanaren edo haxixaren keak substantzia kaltegarri eta kantzerigenoak ditu eta, tabakoarekin gertatzen den bezala, biriketako eritasunak eragiten ditu (bronkitisa, asma, biriketako minbizia, etab.).

Marihuana tabakoarekin batera kontsumitu ohi denez, tabakoarekin lotutako arriskuak gehitzen zaizkio marihuanaren kontsumoari.

Bihotza

Bihotz-maiztasuna eta hodi-zabalkuntza handitzen ditu, eta tentsio arteriala aldatzen. Beraz, bihotzeko eritasunak dituztenendako bereziki da arriskutsua.

Hurdunaldia eta edoskitzea

Gaietan adituak diren profesionalek ziurtatzen dute marihuanaren kontsumoak ugalkortasun maskulino zein femeninoan eragiten duela, eta hurdunaldian arazoak izateko arriskua handitzen.

Berriki egindako ikerketek ohartarazi dute, haurdunaldiaren hasieran, emakumezkoen % 10 eta edoskitzen duten amen % 7 marihuanaren eraginpean daudela, modu aktiboan zein pasiboan.

Substantziak erraz zeharkatzen baitu karena eta umekiaren burmuinera erraz iristen baita, haurrak alterazioak izateko arriskua handiagoa da.

Uste da marihuanaren ondorioak saihesteko modukoak direla, baldin eta haurdunaldiaren aurreko hiru hilabeteetan kontsumitzen ez bada.

Marihuana medizinala. Zer da?

"Marihuana medizinala" terminoa erabiltzen da, marihuanaren konposatu jakin batzuk eritasun bat edo haren ondoriozko sintomak tratatzeko erabiltzen direnean.

Espanian sendatzeko erabiltzea baimenduta dago patologia jakin batzuetarako, mediku-errezetarekin, eta beste tratamendu batzuek patologien tratamenduan eraginik izan ez dutenean.

Landaretik atera eta zernahi botikatan erabilitako konposatu kimikoek (kanabinoideak – CBDa, CBCa, CBGa, THCa...) erabilera anitz dituzte (antiinflamatorioa, analgesikoa, antikonbultsibagarria...) eta aplikazio-moduak ere bat baino gehiago dira (tantaka edo piluletan), beti medikuak gainbegiratu eta kontrolatuta.